

**JUAN BAUTISTA GAMIZ RUIZ
DE OTEOREN OMENALDIA**

Gasteiz, 1983-IV-28

JUAN BAUTISTA GAMIZ-EN LIBURUA AURKEZTEAN

Gasteiz-en, 1983, Apirilak 27

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren sarrera hitzak

Emilio Gebara, Arabako Diputadu nagusi jauna

Jaun-Andreak:

Gaur, hain zuzen, betetzen dira hamar urte, hemen, Gasteizen, eta bere jaioterri Sabando-n, Juan Bautista Gamiz-i Euskaltzaindiak omenaldi bat egin ziola. Omenaldi hura Arabako Diputazioari eta Aita Ion Goikoetxea Maiza-ri esker, egin ahal izan zen. Eta orduan hartu zen erabakia, Arabako Diputazioaren laguntzaz eta Aita Goikoetxea Maiza-ren ardurapean, Gamiz-en lanak liburu batean argitaratzeko. Hamar urte igaro dira ordudanik, eta gaur, zorionean, asmo hura egia bihurtua ikusten dugu. Gaur kaleratzen da Gamiz-en lanak dakartzan liburu sotil eta txairoa. Eta beronen aurkeztapena ospatzeko, Euskaltzaindiak batzarre ospetsu hau eratu nahi izan du.

Eskerrak eman beharrean naiz, bai Arabako Diputazioari eta bai Aita Goikoetxea Maiza-ri euskararen lekukoen kontua izen berri honekin gehitu digutelako. Egia da autore hau ez zela guztiz ezezaguna, baina argitalpen egoki baten faltaz, gehienentzat behintzat, eskuragaitz zen. Orain ez. Orain eskumenean dugu. Eskerrak berriz ere argitalpena prestatu eta ordaindu duten jaunei.

Sabandokoa zen Gamiz. Eta, itxuren arabera, hark darabilen euskarak hango kutsua du, esan nahi dut, han egiten zen euskararen ezaugarriak ditu; eta horrek —esan beharrik ez dago— balioa erantsi baino ez dio egiten argitalpen honi. Denok dakigu gaur Sabando-n eta inguru haietan ez dela euskararik egiten. Gamiz-en liburua dugu inguru haietako euskararen testigu ia bakarra. Horregatik liburu hau aparteko modu batean baliotsua da. Bai dialektologi, folklore, toki-izen eta literatur muetagatik ere arrakasta izango duela uste dut.

Eta badugu besterik ere gaurko ospakizun honetan. Joan den hileko bileran euskaltzain urgazle berrien izendapenak egin zituen Euskaltzaindiak, eta gaur hartako diploma banatuko zaie izenda berriei.

Arazo honi buruz hauxe esan nahi dut: Euskaltzaindia instituzio bat da propio eta berariaz euskararen ardura hartzeko jarria. Erantzunkizun hori du, bada, bere gain. Eta euskararen alorrean beren lanengatik gailurtzen direnei nolabaiteko aitormena zor die. Hori dela eta, noizetik noizera, Urgazle berriak izendatzen ditu.

Gaur zorionean euskararen alorrean langileak ugaritu egin dira, eta hori berez pozgarri da, noski, baina hautapena egin behar izaten denaz geroz, arazo korapilotsua bihurtu da guretzat. Izan ere, eta zalantza gabe, badira izendatu direnez gainera eta landara, beste zenbait, izendapen horren merezient lirakeenak. Hauei eskatzen diet, arren, konpreni dezatela gure egiturek jarzen dizkiguten mugak, eta pentsa bezate, gaur ez bada, bihar edo etzi heldu ahalko zaiela berei ere txanda.

Izendaberriei, aldiz, zorionak eta eskerrak eman nahi dizkiet. Eta halako erregu bat egitera ere ausartzen naiz: Euskaltzaindiarekin beren lokarriak sendotzeko, alegia, txosten bana presta eta gure hileroko batzarreetan irakurtzeko ekar dezatela, berek hautatuko duten gai bati buruz. Hau izango bide da —besteak beste— Euskaltzaindiarekin har-emanetan hasteko erarik onena, edo har-eman horiek hasiak badira, beroiek azkartu eta sendotzeko.

* * *

Excmo. Sr. D. Emilio Guevara, Diputado General

Señoras, Señores:

Tal día como hoy, en 1973, coincidiendo con el 2.º centenario de la muerte de Juan Bautista Gámiz y Ruiz de Oteo, hermano coadjutor jesuita, natural de Sabando y autor euskérico, la Real Academia de la Lengua Vasca rindió un merecido homenaje al mismo, aquí, en Vitoria-Gasteiz, y en su villa natal de Sabando.

Por cierto, guardo uno de los más gratos y entrañables recuerdos del acto celebrado en Sabando. No se me olvidarán fácilmente las reacciones de atención, de sorpresa, estupor y regocijo con que aquellos lugareños seguían la exposición que el P. Goikoetxea Maiza hizo del hermano Juan Bautista Gámiz. Al oír la relación de nombres toponimicos vascos de su pueblo, que Gámiz transcribe en sus papeles, exclamaban: “Ahora también decimos así”, y, luego, el comentario final: “Nunca hubiéramos pensado que aquí se habló jamás el vasco”.

Ese era el comentario, que yo mismo pude oír de personas del lugar y de pueblos vecinos, que de buen grado se sumaron al acto. Sin embargo, los hechos no son tan lejanos. Doscientos años.

También por otros datos era cosa sabida que en la zona montañosa que se extiende entre Vitoria y Estella el euskara perduró hasta época bastante reciente. Y Gámiz, con sus escauceos literarios nos ha quedado como un testi-

go de la variedad vasca que se habló en la zona; testigo que, por ser casi único, es tanto más digno de aprecio.

La existencia de los manuscritos de Gámiz, conservados en Loyola, no era desconocida. En los Euskal Egunak o Días del euskera, celebrados por la Academia de la Lengua Vasca en 1923 en Santesteban (Navarra), el jesuita P. Joaquín Azpiazu dio cuenta de la existencia de este autor. Pero ha sido, sin duda, el P. Ion Goikoetxea Maiza, miembro correspondiente de la Academia, el que ha rescatado del olvido a este autor alavés, ha estudiado a fondo su vida, y ha editado, gracias al patrocinio de la Excm. Diputación Foral de Alava, estos escritos.

Fue precisamente en el homenaje de 1973 cuando se acordó llevar a cabo esta edición. A los diez años justos de aquel acuerdo vemos realizado el proyecto. Hoy por fin contamos con una publicación pulcra, crítica y esmerada de los trabajos de Juan Bautista Gámiz y Ruiz de Oteo. Gracias al P. Goikoetxea Maiza, a la Excm. Diputación Foral de Alava y a todos cuantos con su cooperación han hecho posible esta publicación.

Sobre la persona y obra del autor no me voy a extender, pues otros más versados hablarán más de propósito. Parece que Sabando en los días del autor era un lugar más poblado de habitantes de lo que es hoy, pero, de todas formas, pequeño y pobre. Nuestro autor debió de entrar como fámulo entre los Jesuitas, donde adquirió alguna instrucción, y fue admitido en la Compañía en calidad de Hermano Coadjutor. Andando los años fue Procurador en el Colegio de "La Anunciada", que tenían los Jesuitas en Pamplona.

Aquí le sorprendió la expulsión de los Jesuitas por Carlos III. Un buen día, sin previo aviso, la casa se vio rodeada por la tropa, y los agentes reales confiscaron y requisaron todos los papeles, libros, etc., y expulsaron a los Jesuitas a Italia, donde siete años más tarde murió el hermano Gámiz.

Cómo se salvó de la requisa el cuaderno manuscrito de Gámiz, yo no lo sé. Era un cuaderno donde él, a guisa de entretenimiento, en ciertos ratos libres se distraía componiendo versos. La mayoría de estos versos están en castellano. Pero, cosa de notar, es —a lo que parece— en los últimos años cuando empieza a componerlos en euskara. Como atinadamente observa el P. Goikoetxea Maiza, el hecho de que el P. Larramendi hubiera publicado Gramática y Diccionario vascos y que los PP. Mendiburu y Cardaberaz hubiesen editado también obras en esta lengua, contribuyó sin duda a que nuestro buen hermano cayera en la cuenta de que también era posible escribir versos en euskara, lengua que él sabía y había hablado en su pueblo natal. Así pues, se puso a componer versos en euskara, después que los había compuesto en castellano. En la edición que hoy presentamos dichos versos euskéricos se hallan al fin.

Siendo tan escasos los testimonios que nos han quedado del euskara de Alava, es claro que estos escritos encierran un singular valor desde el punto

de vista dialectológico. Como obra poética, dice el P. Goikoetxea Maiza que la poesía de Gámiz se halla más cerca del género de los bertsolaris que de la poesía culta, lo que no es de extrañar dado el talante y la formación de su autor.

Y pasamos ya a referirnos brevemente al otro motivo, gran motivo también, del presente acto. La Academia, en su sesión del pasado mes de marzo, celebrada en Donostia, efectuó diversos nombramientos de nuevos académicos correspondientes, y en este acto público se va a proceder a la entrega de los correspondientes diplomas a los interesados.

Euskaltzaindia, como institución encargada de fomentar el estudio y el cultivo del euskara, tiene, en cierto modo, una responsabilidad y una deuda contraída con aquellas personas que de modo particular sobresalen o se distinguen en este empeño. Por ello, periódicamente, acostumbra a hacer estos nombramientos. Bien sabemos que la cosa no deja de ser delicada, pues, afortunadamente, suele haber más personas merecedoras del título que las que razonablemente cabe nombrar, pero no por eso vamos tampoco a dejar de hacerlo. Además, los que esta vez no hayan sido elegidos, pueden serlo en sucesivos nombramientos que se efectúen en los años próximos. De todos modos, estos nombramientos quieren ser un reconocimiento que hace la Academia de la labor que en el campo del euskara realiza o ha realizado la persona.

Si alguien nos viniera a preguntar: “¿Qué méritos tienen esos señores y señoras para que se les haya otorgado tal nombramiento?”, le contestaríamos que no es este el momento de exponer aquí los méritos de cada uno, entre otras razones, por no alargar demasiado el acto, pero que en el archivo de la Academia hay cumplida documentación al respecto, la cual está a disposición del que la desee consultar.

De todo corazón felicito a los nuevos académicos correspondientes y, al mismo tiempo, y para vincularlos más íntimamente a Euskaltzaindia, les pediría que preparasen desde ahora algún trabajo que pudiera ser leído en nuestras sesiones, iniciando de ese modo su andadura dentro de la Institución académica.

EN LA PRESENTACION DE LA OBRA DE J. B. GAMIZ

Vitoria-Gasteiz, 1983-IV-27

E. Knörr

Dignas autoridades, Sr. Presidente de la Academia, Señoras y Señores, amigos todos:

Permítanme Vds. que comience con un recuerdo personal. Fue hace diez años, cuando la Academia preparaba los actos conmemorativos del segundo centenario de la muerte de Gamiz. Fui a Loiola, conocí a Jon Goikoetxea, vi el manuscrito de Gamiz y hablamos sobre el poeta, pudiendo recabar yo, gracias a su exquisita amabilidad, la información precisa para una pequeña disertación (*vide Euskera*, XIX (1974), 228 ss.).

Al cabo de este tiempo, me alegra que se haya llegado al término deseado: la edición de la obra de Gamiz, y me satisface haber contribuido a esta empresa, y más tratándose de un trabajo tan digno como el del P. Goikoetxea. Me causa tristeza, sin embargo, no poder contar aquí con la presencia del autor de esta edición y hago votos por su pronto restablecimiento.

Merece en verdad vivos elogios este fruto de largos años de esfuerzo, esta obra, estos comentarios, donde se ha vertido tanto amor y tanto esmero, y donde se refleja un conocimiento profundo del poeta y su tiempo. El P. Goikoetxea, que había adelantado ya en diversos artículos parte de esta obra, ha rendido a los estudios vascos un gran servicio, por el que todos le estaremos siempre muy reconocidos.

No se hace en absoluto violencia a los hechos si decimos que el acto de hoy es una magnífica culminación de una línea que parte de aquellas fiestas vascas de Santesteban de 1923, 60 años atrás, en las que el P. Azpiazu dio a conocer de algún modo a Gamiz. Magnífica culminación, digo, porque este libro es un logrado trabajo de transcripción, estudio y notas, escrito en un vascuence elegante y rico y en un castellano que no desmerece del que poseía, para disgusto de sus adversarios, obligados a enmudecer en ese punto, el fundador de la Compañía de Jesús.

Ahora podemos decir que ya nos es conocido Gamiz, este poeta ciertamente no de las primeras filas del Parnaso, pero sí de un interés grande para el simple lector y para el estudioso de la lengua, vasca o romance, sobre todo teniendo presente que es de una época en que las lagunas son tan extensas.

Dada la popularidad de Gamiz en Navarra por entonces, no sería de extrañar que apareciera alguna noticia de sus andanzas y agudezas, salvada de la pérdida por el mismo azar que nos ha conservado el manuscrito de Loiola.

No hace falta decirlo, hubiéramos deseado disponer de más versos euséricos de Gamiz, para así conocer mejor el vascuence alavés cuyos rasgos entrevemos por el diccionario de Landucci, la toponimia y poco más, esta variedad del euskara occidental con características tan singulares.

Felicitemos muy sinceramente al P. Goikoetxea y nos felicitamos todos, babazorros o no. Y en este pórtico de las fiestas de San Prudencio, recordemos con Gamiz que *babazorro* es todo alavés, no sólo los vitorianos, como a menudo se aplica indebidamente.

Y gracias a la Diputación de Alava, que ha dado nuevamente muestras de su sensibilidad publicando este libro.

Olerkari xume honen obra aurkeztean, bihoazkio Goikoetxea apaiz jaunari nire goresmenak. Aspaldidanik ziharduen berak Gamizen eskuizkribua arakatzen, tarteka bere ikerketaren fruitua ematen zuelarik.

Jakin badakigu Gamiz ez dela inoiz goi mailako olerkaritzat hartuko, Gutti, oso gutti dira, ordea, bere garaiko bertsogile eta berri emaileak, eta urritasun horrek, zalantzarik gabe, Gamiz preziatzenago du.

Gamizekiko lana, noski, ez da Goikoetxearen lanaz agortzen. Haren berri —eta menturaz izkribu— gehiago ager daitezke, batetik. Eta, bestetik, norbaitek ediren ditzake zenbait poematan diren izkutuak, *ad usum privatum* ez, *privatissimum* eginak bait dira gehientsuak.

Ez dirudi egungo batzarre honek egokiera txarra berriro ere euskararen aldeko deia egiteko. Ikerkuntza gaia izateaz gainera, gogo-bihotzetan, aholumetan nahi bait dugu geure hizkuntza. Bizi bedi, bai, euskara, Araban eta Euskal Herri osoan.

E. Knörr

Post scriptum. Batzarrearen ondoko laugarren hilabetean, bizi izan zen modura, apalki eta oin-punttetan bezala —eta berak nahi bezala ere, diotenez— joan zitzaigun Jon Goikoetxea. Azken agurra egitera ere ezin joan: heriotzaren berri bizpahiru egun geroago jakin nuen egunkarien bidez, berria berri ez zelarik. Berandu, urruti, are mingotsago izan zitzaidan albiste, hilobiaren aurrean deitoratzaile ezin izaki.

Betiko atsedena har dezala Jon Goikoetxea gizon prestu, adiskide leial eta euskaltzale sutuak.

JUAN BAUTISTA GAMIZ RUIZ DE OTEO, XVIII. MENDEKO ARABAR EUSKAL ERDAL OLERKARIA (1696-1773)*

Vitoria-Gasteiz, 1983-IV-27

Ion Goikoetxea Maiza

GAMIZen liburuaren aurkezpena

Historia aski xelebrea du aurkeztera goazen liburu honek. “Sasikoa” denik gordinki egotzi gabe, diogun legez eta bide onetik etorria ere ez dela; zeren jesuita legoa baitzen Gamiz eta, Ordenako arauetz, ez zezakeen literatur obrarik idatz. Horregatik, bere idazlanen berri zekien Gongorako markes adiskideari erregua:

“Lo q a visia le suplico
es q no me tome en boca
lo q a poesia toca
ni se le salga del pico
pues por un simple borrico
me graduarian en casa...” (71 orr.).

Hori dela eta, urteetan izkutuan eduki zuen bere sorkaria arabar aitak, lotsaz, baina ez damuz. Beldur zen Tayta izenekoko baten semeari berak kantatua bereari besteak kanta ziezaion:

“En mala guerra y a escote
te dio el ser un desenfado
y a costa de aquel pecado
veniste aca de rebote
no sabe ningún cogote
el padre q te engendro...” (77 orr.).

Iruñean, 1736-1748 bitarteko hamabi urte handitan, gorpuztu zuen liburuia “por afición y divertimento”, baina bai beldurrez ere, esana dugunez.

Ustel atara zitzazkion Gamizi, ordea, isil-liburuarekiko izkuta-ardura guztiak: 1767ko apirilaren 3ko oilaritean erregeren mandatariek eskutik kendu bait zizkioten paperak eta bera erbestera jaurtiki.

* *Oharra*: Ion Goikoetxeak ezin etorria izan du eta beronen ordeztan, Patxi Altuna euskaltzainak irakurri du haren txostena.

Deserrian aita, umezurtz gelditu ziren eskuizkribuak, norbaitek, ausardia handiz, bilbilitar José Butrón Mujika aitatzako egotzi zielarik. Beraz, aragoar aitaizunaren pean, “maño eta baturro” bilakatu ziren arabarraren “irunshemeak”; areago. Loiolako artxiboa egoitz harturik, giputz ere bihurtu ziren eta.

Arabarraren paper solteok, iadanik pergamino liburutan josiak, letra beltz nagusitan “Versos varios del P. Butrón” diote handikiro narru-azal gainean. Bikaintasun honek iruzur eginik, noski, ezarri zuen José Ign. Aranak (1838-1896) euskaraz-ez-zekien Butrón Galatayud-tarra XVIII mendeko euskal idazleen zerrendan. (Henaio, Gabriel: *Averiguaciones Cantábricas*, VI (1895) 92 or.). Erauz bedi, beraz, zerrendatik aragoarra, “zelangoa da Butroero ok daki” eta. (Urquijo, Julio: *Refranero Vasco*, refranes 1596, n. 92).

Loiolako artxibozain batek altxa zuen Aranaren erbia eta orri baten idatzi: “Estos versos no son del P. Butrón... Son del H. Juan Bautista Gámiz... de quien hay muchas cartas en el archivo de Loyola”.

1923ko irailean, Doneztebeko II Euskal Egunetan, Jokin Azpiazua izan zen “Dabilcenchoac” irakurriz, arabar poeta galduaren izena aipatu zuena; aipatu, ez baina argitu, eman zituen albisteen murriztez ilun-argitan utzi bait zuen egilea.

Agerpentxo haren ondoren artxibo zokoan preso jarraitu zuen beste mende-erdiz Gamizek. Zorizko egun baten ustekabez neuk aurkitu nuen eta, Foru Diputazio eta Euskaltzaindiaren esku manerrexez, bahitegitik bere jaio-lurrera erakarri, Gasteizko festetan. (1983.apiril.27). Esan gabe doa pozik duzuela sabandoar apala, hiri nagusi honetatik aspaldiko bere lurrei liluraz begira.

“Berant-seme Gamiz hau” idatzi dut liburuan. Kosta zaio Arabari euskaldun sortu zuen semea beronen idaztietan ezagutu eta “Enetxo hori!” deitu ahal izatea (176 or.).

Gamiz

Liburuaren edukinean barrena abia-aurretik, zenbait hitz egileari buruz. XVII mende hondarrean, Sabandon sortu eta 1696ko apirilaren 8an bataiatua, eskolak, lanak eta jolasak bete zituzten haren haurtzaro-gaztaroak. Jesuita anaia (lego) egin zen Valladolidko Villagarcia de Campos-en bere hogeituzteko urte ederretan.

Hogeituzteko urte ez da denbora luzea inoren bizitzan; aski, baina, Gamizen sentimena herriminak har zezan. Laket izango zaizkie egungo arabar-nafar ekologistei hark bihotzminez egin zituen Araba, Sabando eta Nafarroaren deskribapen liluratuak, seguraski.

Euskotar egiten zuen bere burua, “vizcainos” en sailean egotzi beti. “Babazorro”an gordetzen zuen bere arabartasun ugaria, behar zenean oparo ateratzeko: alegia, “el babazorro Juan Bautista”; “el pobre babazorro; “mandar, que el babazorro se portará”...

Villagarciatik La Coruña aldatu zuten, sukaldari, eta bospat urteren buruan Valladolid hiriburura, bizi osorako izango zuen lanbidea ikastera, dirukontu eta administraritza, alegia.

Egun haietan hain zuzen Iruñeko La Anunciada ikastetxea, ondasunak errekarera joanik, administrari iaio baten eske zegoen, zorretan ez itotzeko. Gamiz izan zen hautatua. Konfiantza eman ziotenei ez zien iruzur egin sabandoarrak, sei urteren buruan erro sendoen gain ezarria bait zuen ikastetxeko ekonomia.

Zorrak kitatu eta arnasa hartzen hasi zeneko, bertsotara jo zuen Gamiz-ek. “Gizon esnaia zen diruzaina eta bertsotarako bere etorria ere ba zuena”-diosku Pérez Goyena nafar bibliofiloak.

Mila zazpirehun eta hogeita zortzi-bederatziren muga-mugan heldu zen Iruñera eta zortzi urte geroago idazten du estreinako olerkia (1736) eta hamar geroago azkenekoa: biren bitartean 12.000 inguru bertso-lerro dago, gai eta neurri guztitakoak.

Zihur nago gai hauetarik hirurok jo eta ziztatuko dutela bereziki irakurlea: alegia.

1go. Kiratseriaz eta abarrez betetako bertso andana luzeak. Bertso-despitan ari direnak hauek dira: Gamiz alde batetik, noski, eta “El Señor de su Miseria”, “El Marqués de la Viruela” eta “El Perro de Lizaso” bestetik, Zubietako “Erretore gizajoa” erdian dutela, arabarra honen alde eta beste hirurak kontra. Sei hilabeteko bertso-torneoa, Zubieta inguru idiliko haiek nazkagarri bihurtzeraino: “Esta es puerca poesia”, batak; “esto huele muy mal a mi nariz”, besteek (140 or.). El Perro de Lizaso hura behintzat zertan kejatu, zaxur-estilorik ikasienean ari bat zen, Zubietako elizgizona zuhaitz bailuen?

2. Araba-Nafarroetako lurraldeen deskribapenak, beroietako gizajendeen jiteak eta askoren gaitzizen bildumak, horietan denetan maltzurkeria eta pikardia ere falta ez direlarik.

3. Emakumeari buruzko bertso piloak, liburuaren erdi-pasa. Agian-gehiegizko zera honetatik arabar poeta babesten saiatu banaiz ere, ezin etsi neure sententzia eman gabe: “Gamiz, emakume aniz!”

Izan ere, emakume batekin haserretuta aldatu zen sabandoarra erdal bertsoetatik euskarazkoetara. Tafallako feriara mandatuz zihoala, Jesusen domina bat ekar diezaiola eskatu zion emakume batek, lepa-zintzilikario. Bat zer ekarriko, bi ekarri zizkion sabandoar oparoak eta, ohi zuen bezala, hamaurreko baten bilduta bidali *biak* “para que Vd. escoja”. Emakumea, ordea,

herrena izaki, arrunt haserretu zen Gamizekin, domina bi “para que Vd. *escoja*” bidaltzen zizkiola irakurriz, eta Iruñean zehar edatu bertsotan “pica-rillo travieso”tzat salatu zuen mandatari zintzoa.

Ikaratu egin zen hau zetorkion eraso itsusia barruntaturik eta, emakumearengandiko bertsoei zorrotz erantzuten bazien ere, bere golkorako izaten zen erantzuna: “no di (los versos) para no meter bulla”.

Dena da sabandoarra, beldurtu eta mindurik, erdal bertsogintzatik gelditu egin zela. 1748ko azaroa zen. Hor eta horrela agortu zen arabar olerkariaren etorria, duela hamabi urte borbor lehertua.

Isilaldi baten ondoren, hamabibat urteko isilaldia agian, bertsotara jotzen du berriro Sabandoko poetak, bere-herriko-euskarazko bertsotara baina. Neurtezineko bideak daude, ordea, duela hogeita bospat urte, Gaztelatik etorberri, erdaraz hasi zen Gamizengandik gaur euskarari eman zaion Gamizengana. Nola hasi bada euskaraz *orduan*, gure “hizkuntza larrekoak” hegorik ez baldin bazuen izarretarako, ARTE eta EDER orok euskal izpirituari ihes egiten ziolarik? Beraz, Gaztelatik-itzulberri poetaren estreinako bertsoke-ta irain eta astindu bat da “a los locos irunchemes”. Bertsotan zer ari “si sois unos cascabeles”? Ez da bertso-lur Iruñea! Hona sententzia:

“Nunca hubo en este clima
quien fuese alumno de Apolo
ni hay noticia de uno solo
desde Pamplona a la china.”

Zaku berean sartzen ditu arabarrak, berean “vizcainos” edo euskaldun oro. 1740ko abuztuan Gongorako markesak eta haren bazkaldarre, bertsotara tentatuz, puntuak ipini zizkioten arabarrari; eta honek:

“Mi Dueño y Señor Marqués,
derrepente y en la mesa
no me mande a mi esta empresa
de coplas, aun q de pies;
“porque de un pobre Alabes
no hay q esperar agudezas,
si no es algunas simplezas
q enfaden sin divertir
y asi no gusto decir
zaborreras subtilezas” (69.orr.)”

Markesaren kartazko erantzunari, ostera kartazko erantzuna arabarrak: “ez naza bertsotara tenta, Jaun Horrek, Apolo berarekin berdinduz, zeren

“un trago de malbasia
ó rancio de calidad
curaran mi ceguedad
para tener en memoria
que soy de junto a Vitoria
y no me entra venidad” (70 c. orr.)

Euskal bertsozaintzari ekitean, ordea, baikor ateratzen da plazara. Hone-
la dio:

“Erderaz eztuzu nay
ene biotza,
euzqueraz copla eguiten
eztut nic lotza
...
Gaizqui ba doaz ere
orra, euzqueraz
ifin naiz au eguiten
neure bildurraz:
eguzu farre
gaizqui mintzacen badut
lotzaric bague” (199 orr.)



Vitoria-Gasteiz, 1983-IV-27.

Ezkerretatik eskumatara:

- Peli Martin, Arabako Diputazioaren Kultur batzordeburua;
- Emilio Guevara, Arabako Diputatu Nagusia;
- Fr. Luis Villasante, Euskaltzainburua;
- Jose M.^a Satrustegi eta Endrike Knörr, euskaltzainak.

Zer gertatu da Gamizen izpirituan horrelako iraulia emateko? Hona labur esan: Larramendirekin topo egin duela barren, liburuan zabaltxeago tratatzen dudanez. Andoaindar euskalariaren ideiak eta pentsakera sabandoarraren baitan sartu dira inolaz ere, honen euskal idazkien eragile. 1760rako ezaguna zuen hiztegia behinik behin. Urte bereko azaroan Loiolara idatzi eskutitzean dio: “sea de servir de embiarme (...) un juego del diccionario del Bascuence del Pe. Larramendi...” ARTE-ko bertso baten aztarna uka ezinekoa da “Dabilcenchoac”eko ahapaldi baten.

Zahartuxerik ekinik izan behar zion arabarrak euskal bertso gintzari. Horregatik ere laburragoa da askoz euskal alorreko uzta.

Gaia, erdara euskara bietan berdina da: emakumeria, eta euskarazkoetan emakumeria soilik. Baina alde handia dago Gamizen erdal emakumeetatik euskarazkoetara. Maltzur samar dabil sabandoarra erdarazkoetan. Ahoxuri, Iruñea limurtuz.

“...y del sexo femenil
de bellezas mas de mil”

kantatu badio ere, ospatu, bestelako horiek ospatu dizkio gehienetan: higuin, mariatso eta holako. Euskal nexka edo emakumeak eder, amesgarri eta... motelagoak ere dira beste haiek baino, zer gerta ere. Erdal kritikoko batek zioskun “la honrada poesia vascongada” hura hemen.

Nondik nora dabil Gamiz *euskal* olerkietan? Non ditu sustraiak? Bi bederen aipa ditzadan: askotariko bere *irakurraldiak* (aitatuak ditu Cervantes eta imitatuak Lope de Vegaren ahapaldi bat eta Larramendiren “EUSKARA” erromantzea); eta batik bat *EUSKAL FOLK-LOREa*, herrikantak.

Sabandoarraren olerki-iturburuen gaiari emana da liburuaren XVI kapitulua osorik.

Bertsogintzari buruzko iritzia emate-lana barkaturik digu Gamizek, bere gain hartu bait zuen eginkizun hori. Hona: “poesia de poca alma” omen da berea, “numen sin quilates” duelako. Hor humilki esanik. Eta barkazioa eskatzen du ondotik.

“que bien merece perdon
el que con afecto canta.”

Emaiozun, bada, oparo bihotzetik. Merezi du, merezi. Golko-bertsoak bait zituen, ez argitaratzeko eginak; norbaitek bortxaz eta nausikeriaz golkoa profanatu eta atereak.

Hizkuntzalarientzat oparagoak izango dira Gamizen sailok, euskal bertso eta letrazaleentzat baino. “Nafarlariak eta arabalariak pozik izango dira, Probintzia biotako albiste bitxirik anitz baitu arabar-nafar honek” idatziz bukatu nuen EGANgo neure artikulua eskuizkribuok idororik. (EGAN, 1-6 (1968) 4. Or.).

Esan gabe doa laket dugula egun, Arabako Foru Aldundiaren eta Euskaltzaindiaren esku zabalez, idaztiok argitaratu eta Juan Bautista Gamiz Ruiz de Otheo sabandoarra Arabako gizon ospetsuen erretaulara eraikia delarik.

GAMIZ-EN LIBURUA AURKEZTATZEAN

Gasteiz, 1983-IV-27

Koldo Mitxelena

Jaso behar zirenak liburu honetan jasoak daude eta esan behar zirenak ere esanak, hemen eta bestetan. Zertako, bada, iruzkin berririk erantsi? Hitza hitz omen da, ordea, edo hitzak hitz behar omen luke izan bedere, eta horregatik agertu naiz honera, gorputzez nahiz errainuz ez dakit oraindik, ordu gaiztoz egin nuen eskaintza nolabait betetzera. Nolabait eta labur, inondik ere.

Bestelako gairik ezean, Gamizen egunetako giroari ekin behar omen nioke, aldez aurretik aditzera eman dutenari banagokio behintzat. Ez dut, haatik, neure lanbidetik irten gabe ibiltzerik sail horretan ere. Hona, halaz guztiz, zenbait ohar.

Aurrerabidean sartuak ginen Euskal herrian, Euskal herriko parte honetan bederen, harako XVIII. mende hartan, aurrerakuntzak kalterik eta sesio haserrerik gabe gertatu ez baziren ere, maizenik gertatu ohi denez. Jendea eta lana gora zihoan, baita jakitea ere, oinatz ezagunak utzi dituen jakitea.

Arrisku larrian bizi ziren jesuitak, gero eta larriago, eta Gamizek ezagutu behar zuen haien hemengo azkena erbestera zutenean bere lagunekin. Beste arrazoi batzurengatik, lehengoekin lotura estua zutenengatik halaz guztiz, agerian zeuden, urrutisko bada ere, Euskal herriaren gobernabideak har zitzakeen galerak.

Remuz, euskara ez zebilen irabazian: mende horretan galdu omen zuen, hain zuzen, lurralde ederra Araban, baita Nafarroan ere segur aski. Bestalde, lekuari begira gelditzen ez bagara, berriz, gorabidean abiatu zen euskara bazter hauetan, Larramendiri eskerrak, batez ere.

Maiz asko aztertua izan den arren, merezi luke andoaindar handi honen eraginak berriz ere arakaturik eta miraturik izatea. Nolanahi ere den eta euskaraz usuegi idatzi ez zuelarik, maisu agertu zen bere garaikoen eta gerokoien aurrean harik eta azken mendearen hondarreraino, hurbilago ere aitormen onik, gero eta bakankiago, bildu duela.

Larramendiren irakaskuntzaren oihartzuna inguruan aurki daiteke Konpainiako jendearen artean, baina laster aski zabaltzen da ingurune horretarik

kanpora ere, Bidasoaz honuntza dudarik gabe, baina baita Bidasoaz haruntz ere, zenbaitek uste duen baino gehiago.

Eta hala behar ere. Zabalkunde horri eskerrak, euskararen lantzea, erlijio gaietan lehenbizi eta bestetan ere bai gero, bestek ere bere gain hartua baitzuen 1767an. Aita Goikoetxea Maizak ikertu du hemen ea gure sabandotarra ere Larramendiren zordun ote den bere euskaltzaletasunean. Orduan jaioa zen, dena den, eta bizi ere orduan bizi.

Gamizek badu, haatik, giroko kutsuaz gainera, berezko kutsu berezirik. Gaiari eta gaiaren erabilerari begira, badu gerozko fraile baten eitea, nik uste: Juan Arolas-ena. Lasaiagoa zen noski arabarra kataluniarra baino, eta ez zeraman pizturik hau hondamenera eramango zuenaren gisako su kiskalgarririk. Negar-zinkurinak, holako nahastekarik inoiz ontzat hartzen badu, ez zaizkio urrundik entzungo. Tankera anakreontiarra dute gehienbat bere bertsoak, Espainian behintzat argien mende hartakoek sarritan duten bezala. Eta ez du inoiz frai Tadeo González jolas odolgiroetara makurtzen duen gisako joerarik.

Norbaitek, eta "Bitaño" zena zelakoan nago, esan zidan behin merezi lukeela beste arabar baten liburuak, eta Ulibarriren *Gutunliburuaz* ari naiz, psiko-edo horietako zintzo batek, zintzorik baldin bada, burutik burura irakurtzea, xehetasun aski nabarmenak aurkituko lituzkeelakoan. Egia da, bestalde, edozeinek, medikuntzan jantzia ez izanik ere, topatuko duela horrelakorik, obra osorik irakurri gabe. Osorik, ez baitakit inork oraindik irakurri duen. Letra dela eta hizkuntza dela, besteak beste, pasarte trakets gehiago eskaintzen baitu leku atsegingarri baino.

Beste zenbaitek, gorago joaz, areago ere esan dit: zenbakien heinean, jende berexi edo berezi gehiago, etxeko berezitasuna dugu hori, aurki daitekeela euskal-gaietan ari garenon artean, beste edozein sailtakoetan baino. Ez nuke nik beste horrenbeste esango eta hobe dugu, inoren markak hausten saiatu gabe, besteren mailan eta neurrian geure burua gorde.

Gamiz arabarrak, dakigunez eta bere paperek aitortzen dutenez, egin zuen bezalaxe. Bestelakoetan neurriak gordetzeaz gainera, egin zuen, halaz guztiz, bere garaiko markak, betirako gainera, hautsi zuen zerbait. Ez baitugu XVIII. mende horretan ez hurrengoan Sabando inguruko euskararen lekukotasunik eman digun besterik, dakidanaren arabera. Iruinerriko kutsua itsatsi bazitzaion ere, ez zuen etxe-aldamenekoa galdu, ezta urrik eman ere, beste herritar batek egin zuen gisara.